

KANALAK

Gure zerbitzuak eta produktuak bezeroengana ailegatu daitezzen hainbat komunikazio kanal erabiliko ditugu. Hala nola, [webgunea](#), [instagram](#) eta gure bezero batzuk adinduak ere izango direnez eta ezingo direnez komunikazio kanal horietaz baliatu, periodikoaren bidez, Ataria, ere helarazten saiatuko gara produktuen iragarkiak jarritz. Horrela, denontzako gurekin harremanetan jartzea errazagoa izatea ahalbidetuko dugu, eta horrez gain, gure proiektua bezero gehiagorengana iristea espero dugu. Bestalde, Sare sozialak erabiltzearen aldekoak ez direnentzat, gure [korreo elektronikoa](#) eskuragarri izango dute eta noski telefono deien bitartez ere ahalbidetu daitezke, informazio gehiago lor dezaten.



Banaketa kanalei dagokionez, online egindako erosketak bezeroengana irits daitezzen, geure berezko furgoneta erabiliko dugu, hartara ez dugu garraio-ibilgailurik erosi behar, errazago kontrolatu ahal izango ditugu bidalketak, azkarrago iritsiko dira produktuak eta galerak murriztea lortuko dugu. Eta azkenik, salmenta kanalei buruz, dendan bertan erosten diren gorpilak eskuz jaso ahal izango dituzte, baina nahi izanez gero, etxera bidaltzeko aukera izango dute.

